GETXOKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE GETXO

# emeki

Gizarte Zerbitzuetako Arloa
Área de Servicios Sociales

Publicación del Área de Servicios Sociales del Ayuntamiento de Getxo
*Getxoko Udaleko Gizarte Zerbitzuen Arloko argitalpena*

Junio 2003 Ekaina - Nº 0 Zbk

## EDITORIALA

Uno de los retos todavía pendientes en nuestra sociedad es la efectiva implantación de la Igualdad de Oportunidades entre mujeres y hombres en todos los sectores de la vida. De hecho, la plena participación de las mujeres en todos los ámbitos en condiciones de igualdad con los hombres es todavía un objetivo y uno de los grandes retos a conseguir en las sociedades occidentales. Promover eficazmente la Igualdad de Oportunidades supone una profunda modificación de las actitudes tanto de los organismos públicos y privados como de la ciudadanía en general. En este sentido y para lograr definitivamente la paridad entre mujeres y hombres, el Ayuntamiento de Getxo puso en marcha el I Plan Municipal para la Igualdad de Oportunidades 1999-2002.

El Plan contempla, en sus líneas de actuación, el fomento de estudios para la consecución de la igualdad de género y la realización de campañas de sensibilización, promoción y difusión de los problemas, intereses y necesidades de las mujeres. Es en este marco de actuación, donde se circunscribe esta revista que ahora esta en vuestras manos.

"Emeki" tiene como objetivo la difusión y recopilación de temas, actividades y experiencias vinculadas con la Igualdad de Oportunidades entre mujeres y hombres llevadas a cabo tanto por el Ayuntamiento como por las asociaciones, entidades, instituciones o agentes sociales de Getxo.

Esperamos que esta publicación sea del interés de todas y todos los getxotarras y facilite la comprensión del mensaje que este Ayuntamiento está expresando en el ámbito de su Plan Municipal en materia de Igualdad de Oportunidades. Con la ayuda de este nuevo medio esperamos seguir impulsando las estrategias y mecanismos que sean necesarios para lograr que la igualdad real y efectiva entre ambos sexos sea una realidad tangible para todas las ciudadanas y ciudadanos de Getxo.

*Gure gizartean oraindik bizirik dirauen erronketako bat gizon eta emakumeentzako Aukera Berdintasuna bizitzako eremu guztietan izatez gauza dadin lortzea da. Izan ere, emakumeek esparru guztietan gizonen baldintza berdinetan erabateko partaidetza izan dezaten, oraindik orain, iritsi beharreko helburua da, mendebaldeko gizarteetan lortu beharreko erronka handietako bat. Aukera Berdintasuna modu eraginkorrean sustatzeak erakunde pribatu zein publikoen eta, oro har, herritarren jarreretan aldaketa sakona dakar. Horren haritik, eta emakume eta gizonen arteko berdintasuna behin betiko lortzera begira, Getxoko Udalak Aukera Berdintasunerako Udalaren I. Plana 1999-2002 abiarazi zuen.*

*Planean, jarduera ildoen artean, genero berdintasuna lortzeko ikasketak sustatzea eta emakumeen arazo, interes eta beharren berri zabaldu eta sustatzea, eta horietaz sentsibilizatzeko ekinaldiak egitea jasotzen dira. Jarduera esparru honetan, hain zuzen, sartzen da orain eskuartean daukazuen aldizkari hau.*

*"Emeki"ren helburua udalak zein Getxoko elkarte, erakunde, talde edo gizarte eragileek emakume eta gizonen artean Aukera Berdintasunari lotuta burutu dituzten gai, jarduera, esperientzia eta jarduerak hedatu eta biltzea da.*

*Espero dugu argitalpen hau getxoztar guztiontzat interesgarria izan dadin, eta Udalak bere Udal Planaren barruan Aukera Berdintasunaren alorrean adierazten ari den mezua ulertzen lagunduko dizuela. Baliabide honen laguntzarekin sexu bien arteko izatezko berdintasuna lortzeko behar diren estrategiak eta mekanismoak bultzatzen jarraitu ahal izatea espero dugu, emakume eta gizonen arteko izatez eta egitezko berdintasuna Getxoko herritar guztiek hauteman dezaten errealitatea izan dadin.*

El Ayuntamiento de Getxo evalúa el Plan Municipal de Igualdad de Oportunidades

# LAS MISMAS OPORTUNIDADES

**El Plan Municipal de Igualdad de Oportunidades para las Mujeres de Getxo se puso en marcha para el periodo 1999-2002 con el propósito de mejorar la calidad de vida de las vecinas y vecinos del municipio.**

Los objetivos y acciones planteadas en dicho Plan están dirigidas no sólo a promocionar la Igualdad de Oportunidades real y efectiva entre mujeres y hombres en todos los ámbitos de la vida municipal, sino que también están destinadas hacia el interior del Ayuntamiento con el fin de impulsar una imagen ejemplificadora en línea con la Igualdad de Oportunidades y Trato entre los sexos.

### Igualdad real

Según señala el Area de Servicios Sociales del Ayuntamiento de Getxo, "a pesar de los avances en pro de la Igualdad, todavía no se ha producido una Igualdad real y para ello, es preciso generar un cambio en la organización de los procesos sociales que permita avanzar hacia una sociedad donde hombres y mujeres sean responsables en todos los cambios de la vida social, y sean coparticipes en todos los ámbitos de la toma de decisiones. La estrategia que se ha demostrado más eficaz ha sido la aplicación de medidas de acción positiva".

Realizar la evaluación del Plan es fundamental si se pretende introducir mejoras en las actuaciones que se realizan desde la entidad. Por ello, el Ayuntamiento de Getxo ha encargado a la consultoría Zero Tailer Soziologikoa tanto la Evaluación de este Plan como el borrador de lo que será el nuevo Plan Municipal de Igualdad de Oportunidades para las Mujeres de Getxo 2003-2006.

Se trata de un proceso continuo que permitirá introducir los cambios y sugerencias que se consideren necesarios. Por esta razón, la evaluación consistirá en dar cuenta del grado de cumplimiento de las acciones propuestas mediante la utilización, entre otros materiales, de las memorias anuales. También se realizarán entrevistas a aquellas personas que han estado próximas al proyecto para recoger algunos datos cualitativos. Asimismo, se aprovechará esta toma de contacto para dar a conocer los objetivos y las propuestas del borrador del II Plan adjuntando la redacción del que sería el programa de actuación para la Igualdad entre hombres y mujeres del municipio para el periodo 2003-2006.

### Equipo consultor

El equipo consultor no sólo trabajará en contacto permanente con el área que está al frente de la redacción del II Plan sino que también contará con las asociaciones de mujeres del municipio. Los borradores de las diferentes áreas de actuación serán enviados a las diferentes entidades con el fin de darles a conocer lo que se propone y recoger así sus aportaciones y sugerencias.

> Para avanzar hacia la igualdad, la estrategia que se ha demostrado más eficaz ha sido la aplicación de medidas de acción positiva

**Nº de Objetivos y Acciones llevadas a cabo** *Burututako helburuen eta ekintzen kopurua*

| | Año *Urtea* | Total en el Plan *Planean guztira* | Trabajadas *Landuak* | % sobre el que se ha trabajado *Landutakoen portzentajea* |
|---|---|---|---|---|
| Objetivos *Helburuak* | 1999 | 33 | 21 | 63.6% |
| | 2000 | 33 | 27 | 81.8% |
| | 2001 | 33 | 30 | 90.9% |
| | 2002 | 33 | 25 | 75.7% |
| Acciones Concretas *Ekintza zehatzak* | 1999 | 164 | 46 | 28.0% |
| | 2000 | 164 | 81 | 49.3% |
| | 2001 | 164 | 100 | 60.9% |
| | 2002 | 164 | 108 | 65.8% |

Fuente: Memoria de Igualdad de Oportunidades 2002. Ayuntamiento de Getxo.
Iturria: Aukera Berdintasunaren Memoria - 2002. Getxoko Udala.

Getxoko udalak aukera berdintasunerako udal planaren ebaluazioa egin du

# aukera berdinak



**Getxoko Emakumeentzako Aukera Berdintasunerako Udalaren Plana 1999-2002 tarterako jarri zen abian, udalerriko herritarren, gizon eta emakume, bizitza kalitatea hobetzeko asmotan. II Planaren Zirriborroa abian da jada**

*Plan horretan jasotako helburu eta ekintzak emakume eta gizonezkoen artean, udalerriko bizitzaren esparru guztietan, aukera berdintasuna izatez eta egitez sustatzera ez eze, Udaletxe barrura ere begira pentsatuta daude, sexuen arteko Aukera eta Tratu Berdintasunaren ildotik irudi eredugarria zabaltzeko.*

**Berdintasuna**

*Getxoko Udaleko Gizarte Zerbitzuen Arloak dioenez, "Berdintasunaren alde aurrera egin den arren, oraindik ez dago benetako Berdintasunik eta, horretarako, gizon eta emakumeak gizarteko bizitzaren aldaketa guztietan arduradun izan daitezen, eta erabakiak hartzeko eremu guztietan berdintasunez parte har dezaten gizarterantz joatea ahalbidetuko duten gizarte prozesuen antolamendua aldarazi behar da. Eragingarrien agertu den estrategia ekintza positiboko neurrien aplikazioa izan da".*

*Planaren ebaluazioa egitea funtsezkoa da erakundetik egiten diren jarduketak hobetu nahi badira. Horregatik, Getxoko Udalak Zero Tailer Soziologikoari Plan honen Ebaluazioa eta Getxoko Emakumeentzako Aukera Berdintasunen Udaleko Plan berria, 2003-2006 izango denaren zirriborroa egin ditzan mandatua luzatu dio.*

*Beharrezko irizten zaien aldaketa eta iradokizunak sartzeko aukera eskainiko duen prozesu etengabea izango da. Horregatik, ebaluazioan proposatutako ekintzak zenbateraino zehaztu diren zehaztuko da, besteak beste, urteko memoriez baliatuz. Proiektutik gertu egon diren pertsonei ere elkarrizketak egingo zaizkie, zer-nolakoen gaineko hainbat datu biltzeko. Era berean, harreman izate hori dela-eta, bide batez II Planaren zirriborroaren helburuak eta proposamenak ezagutaraziko dira, udalerriko emakume eta gizonen arteko Berdintasuna lortzeko 2003-2006 tarterako jarduketa programa litzatekeenaren testua erantsiz.*

> berdintasunaren alde aurrera egiteeko den arren, eragingarrien agertu den estrategia ekintza positiboko neurrien aplikazioa izan da

**Aholkularien taldea**

*Aholkularien taldea II Plana idaztearen ardura duen arloarekin etengabe harremanetan dagoela lan egiteaz gain, udalerriko emakumeen elkarteak ere kontuan hartu eta haiekin arituko da. Jarduera esparru desberdinen zirriborroak erakundeei helaraziko zaizkie, zer egin eta lortu nahi den jakitun egon daitezen eta dituzten ekarpen eta iradokizunen berri eman diezaguten.*

Los datos estadísticos retratan la situación de las mujeres en nuestro municipio

# MUJERES DE GETXO

**¿Sabías que en Getxo hay únicamente 6 calles con nombre de mujer de las cuales cuatro son santas y una reina?**

¿Podrías decirnos quién fue María Goiri? Más difícil todavía... ¿Qué sabes acerca de las mujeres que viven en el municipio? ¿Cuántas son? ¿Estudian o trabajan? ¿De donde vienen?

La información que a continuación te presentamos no tiene vocación de exhaustividad pero a buen seguro te será de gran utilidad a la hora de responder estas preguntas.

Getxo cuenta con una población de 84.655 personas de las cuales 44.373 son mujeres, lo que supone el 52,4 % del total del municipio.

La situación de las mujeres de Getxo no difiere sustancialmente de la situación que viven el resto de mujeres de la CAE encontrando al igual que éstas grandes dificultades a la hora de incluir y visibilizar sus necesidades, sus enfoques y experiencias en un espacio público (político, social, económico y cultural) tradicionalmente reservado a los hombres.

## Mujeres en movimiento

El asociacionismo de mujeres ha constituido un importante motor de cambio para la mejora social. En Getxo, pese a que la dedicación a las tareas domésticas y las responsabilidades familiares dificultan o limitan los tiempos disponibles para la participación social, son ya más de 3.000 las mujeres que se han organizado en torno a las siete asociaciones que operan en el área municipal. Estas asociaciones, heterogéneas en materia de objetivos, actividades realizadas (socioculturales, formativas y de desarrollo, de amas de casa, de viudas, etc.) y número de asociadas, ven afectada su actividad por dos problemas que centran el contenido de sus reivindicaciones: la falta de infraestructura y los problemas de índole económica.

## "Empleándonos" a fondo

Si bien la progresiva incorporación de las mujeres al mercado de trabajo ha supuesto un factor fundamental en la superación de las desigualdades existentes entre ambos sexos, los datos sobre la situación de las mujeres getxotarras con respecto al trabajo productivo y remunerado corroboran la existencia de una importante discriminación.

Sin ir más lejos, según datos del INEM, referidos al cuarto trimestre de 2002 la tasa de paro en el municipio quedó fijada en 9.15%, siendo su incidencia más acusada en la población femenina al contabilizar 1.717 mujeres desempleadas frente a 1.249 hombres.

## Mujeres y nivel educativo

Íntimamente relacionado con la participación en el mundo laboral, el nivel de instrucción de la población de Getxo en general, tanto de mujeres como de hombres, ha aumentado. Si bien continúan percibiéndose desigualdades entre ambos sexos en el ámbito educativo esta desigualdad empieza a reducirse siendo un indicador revelador a este respecto el hecho de que haya igual número de mujeres que de hombres con doctorados y estudios de postgrado en el tramo de edad que va de 25 a 34 años.

**Poblacion total y porcentual de mujeres getxotarras por tramos de edad**
*Guztirako eta hainbateko emakume getxoztarrak, adin tarteka*

| | 0-14 | 15-29 | 30-44 | 45-64 | 65-74 | + de 75 | Total/*Guztira* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Nº de Mujeres *Emakume kopurua* | 5.323 | 9.075 | 9.931 | 12.217 | 3.730 | 4.097 | 44.373 |
| % sobre población total *% guztirako biztanleriaren aldean* | 48,6% | 49,3% | 51,7% | 52,9% | 54,7% | 66,4% | 52,4% |

Fuente: Padrón de habitantes de Getxo 24-02-2003./ Iturria: Getxoko biztanleriaren errolda 2003-02-24

**Mujeres desempleadas en Getxo por tramos de edad**
*Getxiko emakume langabetuak , adinaren arabaera*

| | <25 | 25-34 | 35-44 | >44 | Total |
|---|---|---|---|---|---|
| Nº de Mujeres *Emakume kopurua* | 179 | 505 | 407 | 626 | 1.717 |
| % sobre población parada total *% guztirako langabeen aldean* | 56.8% | 57.1% | 64.5% | 50.5% | 55.9% |

Fuente: INEM (4º Trimestre 2002). *Iturria: INEM (2002ko 4. hiruhilekoa)*

## CALLES PARA 6 MUJERES

Por cierto, por si aún no lo habías adivinado las calles de Getxo con nombre de Mujer son Santa Ana (Las Arenas), Santa Eugenia (Las Arenas), Las Mercedes (Las Arenas), Amaia (Las Arenas), Reina María Cristina (Algorta) y María Goiri (Algorta), ésta última dedicada a la memoria de Dña. María Goiri, nacida en Algorta en 1874. Doctora en Filosofía y Letras, Dña. María Goiri dedicó parte de su vida al estudio del romancero español en cuya materia habría de ser su máxima autoridad. Mujer de gran talento, a los 12 años se matriculaba en la Escuela de Comercio para culminar sus estudios en la Escuela de Estudios Superiores del Ateneo de Madrid donde fue alumna de doctorado de Don Ramón Menéndez Pidal con quien acabaría contrayendo matrimonio. La labor intelectual de María Goiri suma entre libros y artículos más de 30 títulos.



# Getxoko emakumeak

***Ba al zenekien Getxon emakume izena daramaten 6 kale besterik ez dagoena, eta horietatik lau santuak eta bat erregina zirena?*** *Esango zeniguke nor izan zen María Goiri? Are zailago... Zer dakizu udalerrian bizi diren emakumeez? Zenbat dira? Ikasleak ala langileak dira? Nondik datoz? Jarraian aurkeztuko dizugun informazioak ez du xehatuegia izan nahi, baina ziurrenik balio handikoa izango zaizu galdera horiei erantzuteko.*

*Getxok 84.655 biztanle dauzka, 44.373 emakumeak dira, hau da, udalerriko biztanleria osoaren %52,4. Adinen araberako banaketak erakusten du, adinean aurrera joan ahala, emakumeen pisua ere arian-arian gehituz doala. Hartara, 0-14 urte bitarteko neskatoak %48,6 dira eta 75 urtetik gorako zaharrak %66,4.*

*Getxoko emakumeen egoera EAEn bizi diren gainerako emakumeen egoeraren antzekoa da, alde nabarmenik gabe, hemengoek beste guztiek bezala, beren beharrak, ikuspegiak eta esperientziak tradizioz gizonezkoentzat gordetako espazio publiko batean (politika, gizarte, ekonomia eta kulturan) sartu eta adierazteko orduan, zailtasun berdinak dituzte-eta.*

### *Emakumeak Mugitzen*

*Emakumeak elkartetan bil daitezen gizartea hobetzeko aldaketaren bultzatzaile garrantzitsua izan da. Getxon, etxeko eta familiako lan eta arduretan jardun behar izateak gizartean parte hartzeko denbora edo astia mugatu edo oztopatzen duen arren, 3000 baino gehiago dira udalerriaren eremuan aritzen diren zazpi elkarteen inguruan antolatu diren emakumeak. Elkarteok, xede eta egindako jardueren alorretan (gizarte eta kultura gaiak, prestakuntza, garapena, etxekoandreak, alargunak, eta abar), eta bazkide kopuruetan oso desberdin eta ugariak diren arren, beren jarduera beren aldarrikapenen edukiaren muin bihurtzen diren bi arazoren eraginpean dagoela ikusten dute: azpiegiturarik eza eta diru arazoak.*

### *"Lanean Ekinez"*

*Emakumeak lan merkatura pixkana sartuz joatea bi sexuen arteko desberdintasunak gainditzeko funtsezko faktorea izan bada ere, emakume getxoztarren ekoizpen lan ordainduaren gaineko egoeraren datuak bereizkeria garrantzitsua dagoela baiesten dute.*

*Urrutiago joan barik, 2002ko laugarren hiruhilekoari buruzko INEMen datuen arabera, udalerriko langabezia tasa %9,15ean finkatuta geratu zen, eta langabeen artean emakumeak gehiago ziren, 1717 emakume eta 1249 gizonezko zenbatu baitziren.*

### *Emakumeak eta Hezkuntza Maila*

*Lan munduan parte hartzearekin estu-estu lotuta, Getxoko herritarren ikasketa maila, oro har, bai gizonena bai emakumeena, igo egin da. Oraindik hezkuntzaren esparruan bi sexuen artean desberdintasunak igartzen diren arren, desberdintasuna gutxitzen hasita dago, eta horren adierazgarri ona 25etik 34 urtera bitarteko adin tartean doktorego eta gradu osteko ikasketa mailak iritsi dituzten gizonezko eta emakumezkoen kopurua berdina dela da.*

## 6 EMAKUME KALE IZENETAN

*Tira, oraindik igarri ez baduzu, Getxon emakume izena duten kaleak Santa Ana (Areeta), Santa Eugenia (Areeta), Las Mercedes (Areeta), Amaia (Areeta), Reina María Cristina (Algorta) eta María Goiri (Algorta) dira. Azkeneko hau Algortan 1874an jaio zen María Goiri andrearen omenez. Filosofia eta Letretan Doktorea, María Goirik bere bizitzaren zati bat espainiar erromantze bildumak aztertzen eman zuen, gai horretan adituirik gorena izatera heltzeraino. Talentu handiko emakumea, 12 urterekin Emakumearen Irakaskuntzarako Elkartean sartu zen, eta Merkataritza Eskolan matrikulatu zen. Ondoren Madrilgo Ateneoko Goi Mailako Ikasketen Eskolan burutu zituen ikasketak, non Ramon Menendez Pidal jaunaren doktoregoko ikasle izan zen eta, azkenean, harekin ezkondu zen. María Goiriren lan intelektualean, liburu eta artikuluen artean, 30 goiburu baino gehiago sartzen dira.*

## Conoce usted las asociaciones de mujeres de Getxo? ¿Ha participado en alguna ocasión en las actividades que éstas organizan?

## *Ezagutzen dituzu Getxoko emakumeen elkarteak? Parte hartu duzu, inoiz, elkarte horiek antolatzen dituzten jardueretan?*



" No, la verdad es que no pertenezco a ninguna y tampoco me lo he planteado. No he participado en ninguna actividad, ni siquiera en las excursiones.

*" Ez, egia esan ez naiz elkarte batekoa ere, eta ez dut halakoetan inoiz pentsatu. Ez dut inongo ekintzatan parte hartu, ezta txangoetan ere.*



" Sí, conozco alguna aunque no soy socia. No he participado en las actividades que se organizan aunque he querido participar en alguna actividad organizada por la Casa de Cultura de Getxo y no he podido por los horarios. Desde aquí me gustaría denunciar que los horarios no son compatibles con los de las mujeres que trabajamos fuera de casa.

*" Bai, baten bat ezagutzen dut, baina ni ez naiz bazkide. Ez dut antolatzen diren jardueretan parte hartu, Getxoko Kultura Etxeak antolatutakoren batean parte hartu nahi izan dudan arren, ezin izan dut, ordutegiak direla-eta. Hemendik salatu nahi nuke ordutegi horiek ez direla etxetik kanpo lan egiten dugun emakumeen ordutegiekin bateragarriak.*



" Siempre he tenido ganas de participar en alguna asociación pero por falta de tiempo no me he animado. Estuve en la Feria de asociaciones de mujeres que se organizó en Bilbao y me informaron acerca de lo que tenía que hacer para ser socia del grupo de mujeres de Romo y Las Arenas. ¡De este año no pasa!.

*" Beti izan dut elkarteren batean parte hartzeko gogorik, baina astirik ez dudala-eta, ez naiz inoiz animatu. Bilbon antolatu zen Emakumeen Elkarteen Azokan izan nintzen eta Erromo eta Areetako Emakumeen Taldeko bazkide izateko zer egin behar nuen argitu zidaten. Aurten bai!*



" No, no conozco ninguna asociación de mujeres ni tampoco qué tipo de actividades llevan a cabo. Supongo que a este tipo de cosas se apuntan mujeres más mayores que disponen de tiempo libre.

*" Ez, ez dut inolako emakume elkarterik ezagutzen, eta ez dakit nolako jarduerak burutzen dituzten ere. Pentsatzen dut halako gauzetara asti gehiago daukaten emakume nagusiagoak apuntatzen direla.*

## ASOCIACIONES-ELKARTEAK

**ALBOA**
**Tel. 686 72 51 25**
Asociación de Viudas de Uribe Kosta
Centro Coop. Social y Voluntariado N° 3
Parque Gobelaurre s/n
48930 GETXO

**ESKUZ-ESKU**
**Tel. 944 30 08 35**
Asociación de Mujeres para la Formación y el Desarrollo
C/ Puerto Orduña, 16 bajo
48993 GETXO

**GIZATIAR. Tel. 944 63 50 12**
Asociación Socio Cultural de Mujeres de Romo y Las Arenas
Centro Coop. Social y Voluntariado N°3
Parque Gobelaurre, s/n • 48930 GETXO

**ANDRAK. Tel. 944 64 71 71**
Asociación Socio-cultural de Mujeres de Leioa
C/ Monte Ikea, 12 • 48940 LEIOA

**ETXEKIN. Tel. 944 91 16 70**
Asociación para la Promoción de la Mujer
Algortako Etorbidea, 104 • 48991 GETXO

**LAGUN ARTEAN**
**Tel. 635 40 24 59**
Asociación de Mujeres Amas de Casa
Aula de Cultura de Getxo
C/ Urgull, s/n 2° planta
48991 GETXO

**RODA**
**Tel. 944 63 18 96**
Asociación Cultural
Areetako Etorbidea 10
48930 GETXO




**"GIZATIAR"**
**Asociación Sociocultural de Mujeres de Romo - Las Arenas**
Erromo - Areetako Emakumeen Gizarte eta Kultura Elkartea

# AMIGAS DE LA PERSONA

Gizatiar es una asociación humanista. Sus orígenes se remontan al año 1995 cuando a iniciativa de Carmen Feli Pereda, actual asesora de este proyecto, surge la idea de hacer un espacio para las mujeres en el municipio de Getxo. Sin ánimo de lucro "todas las que participamos somos voluntarias", afirma

**todos los meses se hacen salidas o excursiones culturales**

Marisa Remón, su presidenta. "Gizatiar lleva a cabo un trabajo continuo. Nuestro objetivo es reclamar un espacio propio para las mujeres fuera del ámbito privado del hogar", señala.

**Objetivos de la asociación**

Más de 1.400 mujeres se benefician de los servicios ofrecidos por la asociación. El primer objetivo de Gizatiar es fomentar la participación social mediante una escuela de voluntariado que cuenta con cinco comisiones – Atención a la Socia, Cultura, Salud, Tercer Mundo e Instituciones -. El segundo objetivo es facilitar el desarrollo personal por medio de talleres que promocionan la cultura, la relaciones y lo lúdico-social. Por último, desde Gizatiar se pretende canalizar la relación entre las mujeres y su entorno. Con esta finalidad, todos los jueves hay un "Encuentro" en el Aula de Cultura de Santa Eugenia de Romo con actividades que van desde debates, tertulias, información social hasta cine-forum y fiestas de cumpleaños.

**Aprender en la acción**

Desde la asociación se trabajan tanto aspectos lúdicos como formativos. Gizatiar cuenta con la publicación de una revista que lleva su mismo nombre y está hermanada con la Asociación de Mujeres de "Las Vueltas" El Salvador. Durante todo el 2003 tendrán lugar 19 talleres culturales y 8 talleres en temas de salud además del taller de informática.

# Gizakiaren lagunak

*Gizatiar elkarte gizatiarra, humanista da. 1995ean hasi zen, egitasmo honen gaur eguneko aholkulari Carmen Feli Peredaren ekimenez, Getxoko udalerrian emakumeentzako esparru bat eratzeko ideia sortu zenean. Irabazi asmorik gabea da, "parte hartzen dugun guztiak boluntarioak gara", baietsi digu Marisa Remón elkarteko presidenteak. "Gizatiar lanean ari da, etengabe. Gure helburua emakumeentzako esparru propioa aldarrikatzea da, etxeko esparru pribatutik kanpo", dio.*

***Elkartearen helburuak***

*1.400 emakume baino gehiago elkarteak eskainitako zerbitzuen onuradun. Gizatiarren lehenengo helburua gizarte partaidetza boluntarioentzako eskola baten bidez sustatzea da. Bost batzorde dauzka – Bazkidearen Arreta, Kultura, Osasuna, Hirugarren Mundua eta Erakundeak-. Bigarren helburua garapen pertsonala erraztu edo bideratzea da, kultura, harremanak eta joko, jolas eta gizarte alderdia sendotuz. Azkenik, Gizatiarretik emakumeen eta beren ingurunearen arteko harremana bideratu nahi da. Horretarako, ostegunero "Topaketa" daukate, Erromoko Santa Eugeniako Kultura Etxean, eztabaidak, tertuliak, gizarte informazioaren berri eman, baita zine foruma eta urtebetetze jaiak ere egiten dituztelarik.*

***Ekintzan ikasi***

*Elkartetik gozamen, jolas alderdiak eta prestakuntzakoak ere jorratzen dira. Gizatiarrek aldizkari bat ateratzen du, izen bera daramana, eta El Salvadorreko "Las Vueltas" Emakume Elkartearen ahizpa eginda dago. 2003 urte osoan zehar 19 kultura tailer eta osasun gaiei buruzko 8 tailer izango dira, informatikako tailerraz gain.*

# JUNIO - SEPTIEMBRE

## Ekaina-Iraila

03

## ALBOA

**Asociación de Viudas de Uribe Kosta-*Uribe Kostako Emakume Alargunen Elkartea***

- **22 Junio**
  Comida de fin de curso.
- **15 de septiembre**
  Apertura del periodo de matriculación curso 2003-2004.

- *Ekainak 22*
  *Ikasturte amaierako bazkaria.*
- *Irailak 15*
  *2003-2004 ikasturterako matrikulazioaren epearen hasiera.*

## ANDRAK

**Asociación Socio-cultural de Mujeres de Leioa- *Leioako Emakumeen Gizarte eta Kultura Elkartea***

- **18 de junio**
  Salida de puertas abiertas para conocer los productos con distintivo de calidad del País Vasco.
- **8 de septiembre**
  Apertura del periodo de matriculación curso 2003-2004.

- *Ekainak 18*
  *Ateak Zabalik irteera. Euskal Herriko kalitatearen bereizgarria duten produktuak ezagutzeko.*
- *Irailak 8*
  *2003-2004 ikasturterako matrikulazioaren epearen hasiera.*

## RODA

**Asociación cultural-*Kultur elkartea***

- **15 de septiembre**
  Apertura del periodo de matriculación curso 2003-2004.

- *Irailak 15*
  *2003-2004 ikasturterako matrikulazioaren epearen hasiera.*

## ESKUZ-ESKU

**Asoc. de Mujeres para la Formación y el Desarrollo**
***Prestakuntza eta Garapenerako Emakumeen Elkartea***

- **2 de septiembre.**
  Se abre el periodo de matriculación del curso 2003-2004.

- *Irailak 2*
  *2003-2004 ikasturterako matrikulazioaren epearen hasiera.*

## ETXEKIN

**Asociación Para la Promoción de la Mujer- *Emakumearen Sustapenerako Elkartea***

- **Junio (por determinar)**
  Visita Museo Etnográfico Vasco y comida en un conocido restaurante de Bilbao.
- **Junio-septiembre**
  Se abre el periodo de matriculación del curso 2003-2004.

- *Ekaina (zehazteko)*
  *Euskal Museo Etnografikoa ikustera joan, eta Bilboko jatetxe ezagun batean bazkaldu.*
- *Ekaina – Iraila*
  *2003-2004 ikasturterako matrikulazioaren epearen hasiera.*

## GIZATIAR

**Asociación Socio Cultural de Mujeres de Romo y Las Arenas**
***Erromo eta Areetako Emakumeen Gizarte eta Kultura Elkartea***

- **Septiembre.**
  Se abre el periodo de matriculación del curso 2003-2004.

- *Iraila*
  *2003-2004 ikasturterako matrikulazioaren epearen hasiera.*

## LAGUN ARTEAN

**Asociación de Mujeres Amas de Casa- *Etxekoandreen Elkartea***

- **18 de junio**
  Excursión a Burgos.
- **Octubre**
  Comienzo del curso 2003-2004.

- *Ekainak 18*
  *Txangoa Burgosera.*
- *Urria*
  *2003-2004 ikasturtearen hasiera.*

Si quieres saber más, dirígete a los locales de las asociaciones donde te informarán de estas y otras actividades.

*Gehiago jakin nahi baduzu, hona hemen jarduera hauen eta beste batzuen berri zehatzagorik emango dizuten lokalen helbideak. Jo lasai beraiengana.*

Edita: Área de Servicios Sociales del Ayuntamiento de Getxo
Martiikoena, 16 48992 GETXO
Tfno. 94 466 01 30 E-mail: gizartez@getxo.net www.getxo.net
Redacción: Infópolis
Diseño: Impacto Comunicación
Se autoriza la reproducción de estos textos citando la fuente.

COLABORADORES
*LAGUNTZAILEAK*